

100 pta.

5

# DESASTRE

n. 1

(TONTOKERIA KENTZEN DUEN FINEZNEA)



NEW BARBARIANS

Thanks to everyone we drank with, talked with and slept with and to Egghead for leaving. Special thanks to everyone who applied to join the band. All the best to Wayne for the future.

U.R.S.S.=23g; U.S.A.=120\$; JAPON=2.( $\sqrt{7}+\frac{1}{2}$ )[6.3V1.5] $\frac{1}{2}$ ym; SATURNO=16\$; ESPAÑA=100pta

U.V.A.=120pta

DESASTRE

ERREDAKZIOA

Gure helbidea: Goikoatekorrietako aletxereren zanza beiko zubiberrieta,  
13 katastrofe kalea, 64100 Baiona.

Gure telefonoa: 5981238953771654201048327501764+68014723597524...

(GOIZEKO HIRU ETATIK SEI ETARA DEITU, HESEDU)

KAIKO

NEVER MIND THE BOLLOCKS,  
HERE'S DESASTRE (HE HE HE)



ESTADOREN  
AURKA  
ERRESISTENTZIA

2. orrialdea: orain irakurtzen ari zarete
- 3.a: Kortatu elkarrizketa
- 4.a: Diskoak
- 5.a: G.B.H
- 6.a: Reagan new look
- 7.a: K.G.B. Hendaiaiko kantaldia
- 8.a: Battalion of Saints-Vomit Social
- 9-10 orrialdeak: Politika (fuck off)
- 11.a: Beste kantaldi bat
- 12-13: Iepe-Txo
- 14.a: Fantastikoaren gaua Utopian
- 15.a: Ez baduzue zuek egiten eta idazten, ezer.
- 16.a: Ikus 15.ean idatzia dena.



KUSKULI  
REDACTEUR EN  
CHEF + KAZETARI



KETXUP  
SEKRETARIA +  
PUBLIZITATEA




RIP  
MAKETISTA



SIKI SAKA  
HEGOALDEKO  
BERRI EMAILE BEREZIA

Jaunttoek gurekin egiten dutena...



Desastre ez dugu guk  
bakarrik egin behar.  
Kontakta gaitzazue  
eta bidali zuen artikulua,  
komentarioak eta abar...  
hemen publikatu ditzagun.  
Milesker

DESASTREKO LANGILEAK

ANDICHO  
EN EL BAR  
ALAN MORILLA  
BURGOS...  
OS AL BAR!!!

# KORTATU

DEFECTUOSO


EL MINISTRO DEL  
INTERIOR MIENTE  
TODOS AL SUELO  
QUE VIENE  
BARRIONUEVO!  
~~~~~  
OI OI OI

3

Elkarrizketa hau Arrangoitzeko kontzertua eta gero egina izan da, Inigorekin.




- Gustatzen al zaizue hemen jokatzea?
- Bai, oso ongi pasa dugu. Beste aldean mobida gehiago baldin badago ere, hemen (ipar aldean) gero eta hobekiago dago.
- Zure ustez, zer faltatzen zaio ipar aldeari mobida gehiago izateko?
- Jendea falta zaio, kontzertueta ra joaten den jendea. Beste alde batetik ere, beste aldean talde gehiago dago eta ezagutuak izateko posibilitate haundiagoak dituzte.
- Noiz aterako duzue disko berria?
- Udara honetan grabatzen dugu eta irailan aterako da kalera
- Euskaraz kantatuko duzue?
- Bai, gehio eta hobe. Ikasten ari gara.
- Hardkor gustatzen zaizue?
- Ez asko. Trekuri bai. Guk, ska eta reggae nahiago dugu, eta punk piskabat, THE CLASH... Gertatzen dena da, Hardkor talde gehienak edozein gauza jokatzen dutela, eta lau segundutan 30 hitz esaten dutela. Katalunian Hardkor talde oso onak daude, L'ODI SOCIAL, DECIBELIOS...
- Zer taldeekin gustatzen zaizue jokatzea?
- RIP, CICATRIZ, HERTZAINAK... RIP taldearekin kontaktu oso onak ditugu, eta Arrasateko mobida de puta madrekoa da. Garagardoa ere gustatzen zaigu!



KORTATU dira: FERMIN (gitarra eta kantaria)  
INIGO (bajoa)  
TREKU (bateria)

KONTAKTOA: 62.37.81

R+P




FERMIN




ANTOLATUA (KONZERTUA)  
ANARKISTAK  
HUGIHENDU  
EUSKADIK  
E.M.A.

KETXUP



ESKORBUTO  
ANTITODO



4

ESKORBUTOren disko berria kalera atera zaigu, azkenean. 10 kantuz osaturik dago. Erredakzio guztiaren ustez disko aski on bat da, baina ez Eskizofrenia bezain azkarra. Hala ere, kantu on batzuek daude, ANTITODO, ES UN CRIMEN, CUIDADO... Hitzak berak dira, munduaren bukaera, sozietate ustela... Taldekoak berdina dira: Pako baterian, Iosu gitarran eta *Juanna* bajoa eta ahotsa. ESKORBUTO maite baduzue, disko hau ere gustatuko zaizue, baina ez lehena bezain-beste.

Siki Saka

HERTZAINAK

HAU DENA ALDATU NAHI NUKE

Kakatzar bat! Holaxe da HERTZAINAK taldearen disko berria. Haiek egin nahi izan dutenada super-disko bat atera, teknika aldetik bereziki. Disko hau guztiz komertziala da, eta guztiz txarra. Beharbada kantu hoberena EGUNERO izango litzateke. Ez du pena merezi erosten, hobe duzue 50 frankoak Desastreri ematea bigarren numeroa atera dezagun.

Siki Saka

G.B.H.

MIDNIGHT MADNESS AND BEYOND...

G.B.H.ren laugarren diskoa da hau, eta ez dena batere txarra. Kritika bakarra litzateke haien kantuak pixkabat Heavy Metalizatu direla, baina oso gutxi. Kantu hoberenak LIMPWRISTED, HORROR STORY eta CHANCE FOR LIVING dira, nere ustetan. Orokorki, disko ona, ez lehena (Leather, bristles, no survivors and sick boys) bezain azkarra, baina entzuteak pena balio duena.

RIP

EXPLOITED

LIVE AT THE WITHEHOUSE


La osti! Desantamadre! Disko hau benetako diamante bat da, Hardkore maite duzenentzat. Washington hirian grabatua izan da, 1985eko apirilan. Kontzertu ezin-hobe bat, LET'S START A WAR, PUNK'S NOT DEAD eta TOTAL EXPLOITED diskoetako kantuekin. 16 kantu dago, denak oso onak, haien artean I BELIEVE IN ANARCHY, ARMY LIFE, GOD SAVED THE QUEEN. Portadaren marrazkia ere oso polita da, ( etxe zuria hautsia eta Yankien bandera urratua gainean simboloarekin ). Beraz denak kalean oihukatu ezazue EXPLOITED, BARMY ARMY!!

RIP

BURGESET BELDUR EMATEKO

TATXER ANDREA,  
PUTA KUMEA!!  
(BALDIN BADA)

LA PASHA  
CUIDA DE TU  
SEGURIDAD  
TU RU RU!!



THE EXPLOITED

# CHARGED G.B.H



ANTICHRIST


## CHRISTIANISED CANNIBALS

SUITS OF BLACK SERENE ROBE  
INTO YOUR MINDS THEY WILL PROBE  
CHRISTIANITY IT'S A PAIN  
FINANTIONAL POWER IT'S THEIR GAIN


CHRISTIANISED CANNIBALS  
CANNIBALISED CHRISTIANS  
CHRISTIANISED CANNIBALS  
HOLYER THAN THOU MEN OF SIN  
WICKED HEARTS LURK WITHIN  
POINTLESS EYESORES, BEING ERECTED  
WITH THE MAFIA YOU'RE CONNECTED  
EVERYTHING'S FOUNDED ON THE BOOK  
IT WORKS LIKE A MAGNET IT'S YOU THEY HOOK  
IT'S A FUTILE CAUSE YOU'RE FIGHTING FOR  
SPAWING HATE AND DEATH AND WAR

JANGIZON KRISTIANIZATUAK  
Zapi beltzez jantzitako mamuak  
Zure burum~~in~~ak miatuko dituzte  
Kristianismoa sofrikuntza bat da  
Finanziamendu oderea haien mozkina da  
Jangizon kristianizatuak  
Giristino jangizonduek  
(zu) Pekatzaile hauek baino santuago  
Bihotz ustelak zure barnean gordetzen dira  
Horrore absurdoak jazartu ditueze  
Eta mafiam sartuak zarete  
Dena biblian errotua dago  
Imantebat bezala dira, zure gainean  
atxikitzen  
Ezertarako borrokatzen zara  
Bakarrik amorrua gerla eta heriotza  
goresten duzu.

HILESKER GURE INGLESEKO IRAKASLEARI  
ETA "ROBERT & COLLINS" HIZTEGIARI oi!



&  
CITY BABY'S  
REVENGE!!



APEAK  
KANPORA  
ELIZAK  
GURETAK



FUCK REAGAN ETA HITLER



HEIL  
REAGAN

PUNKY  
DE  
POSTAL

HITLERREN SEMEA BIZI DA!

(ETA GAINERA, IV REICH PREPARATZEN ARZ DA)

Egun guziz ikusten duzue,telebistan,egunkarietan,zopan.  
Zintzoa ematen badu ere,puta kume bat besterik ez da. Munduaren  
inbasioa egiteko prest dago;bere izena: **HITLER BERRIA**  
(batzuetan Reagan deitzen dute).Dagoeneko,Libanon,Nikaraguan et  
Salbadoren jendea garbitu du.Orain,estrategia berri bat ezartze  
ari da Europa izorratzeko: O.T.A.N.Ez badugu ipurditik joan  
nahi,ez dezagun alu hori gure lurretan sartzen uzten...

RIP

LA PIJA RECORDS

## HENDAIKO KONTZERTUA

Martxoaren zazpian EMAk ( Euskadiko Mogimendu Anarkoak ) antolatzen zuen, eta hiru talde zegoen: Begixintxo, KGB eta Akelarre.

Normalki kantaldi-meetinga 9etan hasi behar zen baina beti bezala berandu hasi zen ( coutumes d'iparalde ).

Lehen taldea Begixintxo zen, baina ezan dut gauza haundirik esan lagunekin kanpoan nintzelako.

Erredakzioa (1985ko artxiboak): Begixintxo hemengo Hardcore talde bat da, 1976an sortua. Haien musika, hobe esan zarata, Disorder eta D.O.A artean kokatzen da. Gehien maite dituzten taldeak Accursed, Discharge eta Ultimatum dira. Dirudienez, kantaldietan mandolina eta akordeoi elektrikoa erabiltzen dute, 4,6 Watteko potentziarekin OI OI

Mintzaldi bat eta gero KGB hasten zen. Haien lehendabiziko kantaldia zen eta haien musika Hard eta Punk artean dago. Hiru kantu jo dute, oso piztuak. Bukatzeko Decibelios taldearen "viento de libertad" kantua egin dute, piskat masakratua. Haiekin elkarrizketa bat egin dugu.

Beste mintzaldi bat eta gero Akelarrek kantaldia bukatzen zuen. Ez nuen ezer entzun joan nintzelako, baina ez nuen ezer galdu, Akelarre bost-axola zaidalako (erredakzioari ere).

Bukatzeko esan behar da talde on bakarra KGB izan zela, eta kantaldian ez zela giro ona egon, jendeak haien ipurdiak aulkietan kolatuak zituztelako.

## KUSKULI

PERRO RATONERO



HITO DELA CALLE.

K.F.B

elkanizketa

D- NONGOAK ZARETE? NOR ZARETE?

K- Donibane Lohitzunekoak. Luis gitakantua, Alain bateria, Kunkum bajoa eta Bruno gitarra.

D- Noiz hasi zarete?

K- Duela urte bat eta erdi lokal baten bila gabiltz, eta duela 3 hilabete aurkitu dugu. Dena berriz hasi gara, taldeko batzuek ez baitzekiten jotzen.

D- Nondik ikasi duzue musika?

K- Gugandik, irakasle gabe.

Espontaneo bat: ni naiz erakaslea

D- Zenbat kantu duzue?

K- 3, baina lan egingo dugu hobetzeko eta gehio egiteko

D- Etorkizuna?

K- Ahal dugun kontzertu gehienak egin.



plan bukatu da elkarrizketa, 20 pertsona inguruan, denak mintzatzen. Kazetan zen ezer ulertzen. Datorren Desastren KGBren kantu bat aterako dizuegu.

# BATTALION OF SAINTS



8

Zer da hori? Tomate salda bat? Ez. Californiako (San Diegoko) talde bat da, 1983an sirtua. Duela urte erdi bat haien lehenengo diskoa atera zuten, "Second coming" izenekoa (Nutron records). Hardcore-Heavy metal musika bat jotzen dute, arina eta ona. Dirudienez haiek gehien maite dituzten taldeak U.K SUBS, G.B.H eta DISCHARGE dira. Battalion of Saints kontaktatu nahi baduzue, hona hemen haien helbidea:

BATTALION OF SAINTS, NUTRON RECORDS  
2015 MEADE AVENUE  
SAN DIEGO, CA 92116  
U.S.A

## VOMITO SOCIAL KONTZERTUAN

## OI OI PRESS ORERETATIK

### SIKI SAKA

Hondarrabiko gaztetxean gertatu zen, duela 15 egun. VOMITO eta DANBA ziren pasatzekoak. Danba Lauiotik ez zenez etorri, Vomitok bakarrik jo zuen. Sarrera debalde zen, (iparraldean guttitan gertatzen da, zeren debalde diren bakarrik LE PENen diskur-soak dira. Faxista honetaz mintzatuz, jakin ezazue datorren Desastren, beti bizi bagara, berrikuntzako artikulo luze bat izango duzuela, foto eta guzti)

Kantaldiarekin segituz, 7ak eta erdietan hasi ordez lotan hasi zen. Berez, lotan jende guzia joan zen, eta 40 pertsona gela itxi zen.

Vomitok 7 kantu jo zuen, haien artean NO MAS TORTURA, YA NO HAY SOLUCION. Kantu oso onak, eta hitz politekin.



FRANCE PRESS

G.A.L. BAIONAN

Duela denbora gutxi, inor ez bada ohartu ere, GALEko kefeak baionara etorri zaizkigu, (partidu sozialistaren bulegora zehazkiago esateko) merzenarioei bisita ttiki bat egitera. Gure kazetari bat hor zegoen, sekretaki (sarreran P. Seko karta erakutsi zuenean sartzen utzi zuten), eta foto batzu hartu dizkigu. Dena entzun du, eta bizirik atera zaigu. Irakurle maiteak, munduan lehen aldikotz, Desastrek galosoen fotoak erakusten dizkizue, eta gainera haietako batekin elkarrizketa bat. Bere izena: DEDE.

DESASTRE toki guzietan dago, beti zuei informazioa emateko prest.

Denak eseri dira, eta DEDEk bere kefeari (FAFA izenekoa) urrezko eskopeta bat eskaini dio bera ere entrena dadin eta baiona ttikitik ibili daiten (ikus foto 1). Beroki txalokatua izan eta gero VIVE LE SOCIALISME oihukatu du eta FELIPITOrri eskerrak eman dizkio Españak eman dion laguntzagatik.

Hau eta gero txokolate bat edatera joan dira, Baionako kooperatzaileek eskainita. Han, gure kazetariak "HORREUR ET PUT-REFACTION!" oihukatu du, bere begien aurrean inoiz ikusi ez zuen gauza bat ikusis. GALEn dagoen ile horiko neska aurkitu du, ezin harrapatua den hori. Harek harrapatu du, fotoan bakarrik zoritxarrez Berehala, konklusio lojiko atera du: harek harrapatu badu eta txakurkurrek ez, horrek esan nahi du Operation Eclat baino hobeagoak garela, eta ongi bilatzen denean beti aurkitzen dela.

Beraz, txokolate beroa edan eta gero musukatu dira (Mamones...) eta bakoitza bere etxera joan da oso lasai, txakur guzien artean pasatuz.


(Arrazoi ofizial batzuegatik ez dizuegu galosoen izenak emango, baina ez bazarete aita saindua bezain tontoak erre aurkituko duzue).

KUSKULI





GALOSOAK TXOKOLATEA  
EDATEN. LEHEN PLANOAN,  
ILE HORIKO NESKA.  
(BERE IZENA: CAROLE REPY)



## GALOSO BATEKIN ELKARRIZKETA

(Harek Berez... esan du.)

KUSKULI- Orduan, zure nagusiaren bisitaz pozik?

Jonathan Piarres DEDE- Hem... NERE NAGUSIA ?

K- Ez axola, lagunaren artean gaude. Lasai mintza zaitezke, sozialista hilabetekari bat gara.

D- Aaa, beldur egin didazu. Bai, eta gainera Baiona ttipira aranak landatzera joaten banaiz, aurrarapena eta saria izango dudala esan dit.

K- Urteak aurrera doaz eta beti gazte zaude. Zure sekretoa ?

D- Laguna zarelako esango dizut. Muskulatura piskabat egiten dut, zerent atentatu lekutik otera bide luzea dago, eta asko lasterkatu behar da. (ikus fto 3)

K- Zer pentsatzen duzu terrorismoaz ?

D- Lazgarria. Horregatik GAL taldean sartu naiz, hori borrokatzeko. Gure herri maitean justizia egin behar da, ez ?

K- Bai, eta ikastoleta ?

D- Konzentrazio kanpamendu bat behar litzateke terrorista ttiki hauentza. Pena da Frantzia herrialde demokratiko bat dela eta Amnesty International atzean daugakula... España dago, gaur arte ez nuen pentsatu. Bai, ideia on bat litzateke, Felipitori proposatuko diot...


K- Ba al duzu hitzik bukatzeko ?

H- Vive la France (cher pays de mon enfance), vive la democratie et non au terrorisme (quoi que le GAL ca rend service).


FOTO 3

KUSKULI

**FUCK THE SOCIALISTS,  
FUCK THE ALL POLITIANS  
& FUCK THE SYSTEM.**



DECIBELTOS = TODOS LOS POLITICOS PROMETEN  
LO MISMO,  
TODO LOS POLITICOS PROMETEN  
LO MEJOR  
TODO LOS POLITICOS SON LOS MEJORES



# SER BIZIO ZARAMA BALDIN BADA KORTATU



11

oï/oï/ PRESS  
EFE AGENZIA  
ORERETATIK

Ostiralean, otsailak 28an, Irunen, Uranzu frontoian hain zuzen, kriston kontzertua genuen. SER BIZIO, ZARAMA, BALDIN BADA eta KORTATU. Mòbida ona, eta garagardo asko. JARRAiek antolatzen zuen, O.T.A.N en aurkako kanpainan. Sarrerak 400 pezeta balio zuen eta organizazio txarra.

Lehenak SER BIZIO izan ziren. Kantu onak, bikainak izan gabe, baina jendea berotu zituztenak. Gauza txar bakarra izan zen kantaria piskat tontoa zela eta ez zuela behar bezala jendea deliratu arazi.

Gero, ZARAMA. Talde honekin problema bat dago: Zarama beti dela Zarama eta ez badugu maite, barrera goazela edatera. Maite badugu, esan behar da disko berriaren kantu asko jo dutela eta jende asko zego-  
-la dantzan.

Zarama eta gero BALDIN BADA, Irun HARDKORE taldea. Punky guziak aurreraka doaz eta ostiak hasten dira. Jotzen hasten direnean, jende guziak dantzatzen hasten ari dira ere, eta Katturekin batera kantatzen. Babesteziak lurrera erortzen dira, eta sono guzia hausten dute. Ordu erdi batez delirio osoa pasa genuen B.B.rekin, eta azken kantua serbizio militarra egiten ari den lagun bati dedikazatu zioten.

Azkenak KORTATU izan ziren, eta bakarrik esan oso ondo egon zirela, beti bezala, beren graziakin. Publiko guzia kantatzen zegoen, eta ematen du haien kantuak guztiz popularizatu direla.

Osoki, kontzertu ona. PATXAKoei galdetuko diegu noiz antolatuko duten datorren jaialdia, piskat dantza dezagun, koño!

SIKI SAKA

nota; Talde batekin entrebista bat egitea imposiblea izan zaigu, antolatzaileek ez zigutela uztzen.



# IEPETXO

(BATZUNTAN  
HAIEN IZENA  
"L4MINAK"  
DA)



IEPETXO, DENEK EZAGUTZEN DUZUE.

BAIONA INGURUKO NESKA TALDE BAT DA, LAU  
HIZKUNTZETAN KANTATUKO DUTENA (EUSKARA,  
INGLESA, FRANTSESA ETA ESPAÑOLA).

EZ DUTE TXINOZ KANTATZEN EZ DUTELAKO IKASIT

NOTA: IEPETXOKO KANTARIA GUREKIN LANEAN ARI DA

**D-** NOR ZARETE TALDEAN?

**I-** KETXUP KANTUAN, KRISTEL BATOAN, JOELLE  
BATERIAN ETA X\*GITARRAN (\*BERE IZENA ESATEKO LOTSATUA...iii).  
A! ETA DIOS ARGIETAN

**D-** NOIZTIK HASI ZARETE?

**I-** DUELA HIRU ASTE... (N.L.D.R.: HUM)

**D-** KANTURIK IDATZI AL DUZUE?

**I-** EZ. BESTE TALDEEN KANTUAK JOKO DITUGU ASTEKO.

**D-** ZERTAZ EGINGO DITUZUE KANTUAK?

**I-** E.U.S ASKATUTAZ, HEMENGO JAUNTO EDERRETAZ...

**D-** IPARRALDEKO LEHEN ROCK NESKA TALDEA ZARETE, NOLA IKUSTEN DUZU

**I-** JA JA JA. GAUZA BERRI HONI HASIERA ON BAT EMATEA SAIAZUKO  
GARA. GURE TALDEAN BAKARRIK HOMOSEXUALAK, ETA KALIHOTXOAK  
ONARTZEN DITUGU, BAINAK PUBLIKOAN DENETARIK.

(N.L.D.R.: PUBLIKOAN MUTIKO ON  
ASKO DAGO)...

MODESTOAK EZ IZATEKO  
LEHEN KONTZERTUAN  
500.000 PERTSONA  
ITXOITEN DUGU.

## LIGHT SHOW PATRICK

(ASSOCIATION SUD-ATLANTIQUE)  
(LOI DE 1901)

(13. orrialdean  
segitzen du.)

ECLAIRAGES SCÉNIQUES  
EFFETS SPÉCIAUX  
POUR CONCERTS

CONTACT


**59.64.80.51**

# IEPETXO



- D- ZER MUSIKA MOTA MAITE DUZUE?
- I- PUNKIA (EXPLOITED, ESKORBUTO...), REGGEE, POP, FOLK, HEAVY...
- D- DESASTRE GUSTATZEN ZAIZUE?
- I- PILU BAT, GEHIENIK JIMMY JAZZEN MARRAZKIA ETA KETXUPEN ARTIKULUAK. BESTE GUZIA IPURDIA GARBITZEKO (PARREAK) KETXUP: ZORIALDIA DAUKAT GAUR
- D- SERIOSKI JOTZEN HASI AL ZARETE?
- I- HUM... XER GITARRA JOTZEN DAKI, JOELLE BATERIA HASIDA, KRISTEL LOTAN DAGO ETA KETXUP ARRAULTZEAK JATEN.
- D- BA AL DUZUE ESALDIRIK BUKATZEKO?
- I- X: GURE TALDEA MUNDUKO HOBERENA DA!!  
Ketxup: BESUGOA JATEKU GUGUA DUT  
Kristel: RRRZZZ (LOTAN DAGO)  
Joelle: ATZO BATERIAKO 3en KURTSOA EGIN DUT!

RIP & KETXUP



Esaera zaharra:  
Krestak ez du punkia egiten, punkiak kresta baizik.

OI OI OI OI OI OI OI  
OI OI OI OI i OI OI  
OI OI believe OI OI OI  
OI OI OI OI OI OI in OI  
OI OI OI anarchy OI OI.





SIDE TWO

OI OI PRESS

14

FANTASTIKOAREN GAUA UTOPIA ZINEMAN

86/III/1



Martxoaren 1ean gertatu zen. 70 liberentzat 4 filma genuen, beraz joateak pena merezi zuen. Beraz, OI OI PRESS agenzia eta Desastreren izenean Kuskuli kazetaria bialdu genuen han gertatutakoa kontatzeko. Bizirik etorri zaigu, goizeko bostetan, baina lepoan banpiro baten koska batekin. Banpiro bihurtu baino lehen, hitz batzu esan dizkigu, artikuloa idatz dezagun...

Guttienez 230 pertsona etorri zen Zinemara. Jendez trumilka zegoen eta esan zidatenez 100 kanpoan gelditu zen (kontsolatzeko telebistan Rambo pasatzen zuten). 8ak eta 45etan hasi zen lehen filma, "ne vous retournez pas" izenekoa. Historia ederra, Benezian gertatutakoa. Lodiki esanez, gizon bati bere neska hilzen zaio, eta urte batzu geroago gorritz jantzitako neska bat ikusten du beneziako kale ilunetan eta bere atzetik doa. Noski, neska ez da txanogorritxu baina bere alaba baizik, baina guztiz zahartua. Andre zaharrak gizona hiltzen du eta dena bukatzen da. Gaueko filma hoberena nere iritziz. Efektoak, fotografia eta montaia ongi eginak.

Hamar minutu eta gero "la forteresse noire" filma genuen, baina ez dizuet gauza haundirik esango oso txarra zelako.

Hirugarrena "poltergeist" zen, ez oso ona, baina ikusgarria zena. Piskat parregarria zen, terrorezkoa baino.

Azken filma sorpresa pasa baino lehen, zinema salan festa zegoen. Denak gauzak botatzen zeuden, batak bestearen aurpegira. Filma hasi zenean euria zegoenez, batzuek ur baso bat bota zuten, eta emazte zahar-rrak busti ziren. Gaixoak oihuka hasi ziren, errespeto falta zegoela eta gerla on bat beharko genuela edukatzeko eta bide onetik joan gaitzen.

Filma sorpresa "rocky horror picture show zen", erdi-porno erdi parregarria. Ez dizuet historia kontatuko ez nuelako ezer ulertu.

Bukatzeko esan goizeko 5etan bukatu zela eta nekatua nintzela eta ohera joan nahi nuela eta gehiago jakin nahi bazenuten aski ze-nuten han egotea.

nota: Desastrek azken 4 urteetako pelikula txarrenak pasatuko dizkizue datorren maiatzaren 39an, Baionako St Andre elizaren barnean. Filmak ROCKY 4, INVASION U.S.A., RAMBO 2, Les dix commandements eta Les gendarmes et les extra terrestres izango dira. Sarrera 768fr izango da. Informazio gehiago nahi baduzue deitu 59812389537716542010483275... telefonora, goizeko hiruetatik sei etara.

HEMEN BUKATZEN DA DESASTRE N°1. EZ BAZAIZUE  
GUSTATU, GARBITU IPURDIA PAPER HONEKIN. GUSTATU BAZAIZUE,  
MILESKER AINITZ ETA HELDUTEN DEN HILABETE TA ERDIRA ARTE.

AGUR